



Zurumurruen | Red Vasca
Aurkako Sarea | antiRumores

Trebeziak

KOADERNOA



Sarrera

Trebezia terminoak bi zentzu ditu zurrumurruen aurkako estrategian. Horietako bat ageri-agerikoa da, eta **pertsona batek igortzen duen edukia** egoki **komunikatzeko garatu behar dituen abileziekin lotuta dago**. Igorlea-hartzailea-kodea-kanala eskema ezagunari jarraituz egin behar du, eta zarata da hori kaltetu dezakeen elementuetako bat. Eta kasu honetan, desberdintzat jo ditugun pertsonetikiko ditugun estereotipo ugariak dira zarata.

Duela urte batzuetatik, zurrumurruen aurkako estrategien barruan, bitartekaritzarekin, *coaching*arekin, aholkularitzarekin eta abarrekin lotutako profesionalak komunikazioaren arloko zenbait ikuspegi eta tresnarekin egiten ari dira lan egiten. Eta koaderno honetan, hain zuzen, profesional horiekin hitz egin nahi dugu, eta haien ikuspegiak, ezagutzak eta esperientziak sistematizatu. Horren haritik, elkarte eta pertsona hauei eskerrak eman nahi dizkiegu, egin duten lanagatik: **Matiz Elkartea, Balioen Hezkuntza, Amekadi Euskadiko Bitartekaritza Elkartea, Raquel Moreno**, d-CASEko kontsultorea eta laguntzailea zurrumurruen aurkako estrategietan, eta **Asier Gallastegi**, kontsultorea, hezitzailea eta *coacha*.

Beste alde batetik, komunikazioaren arloan adituak diren pertsonen iritzia jakin nahi izan dugu, ongi funtsatutako iritzia, alegia. Gaur egun, sare sozialak funtsezko espazioa dira gure gizarteetan, eta gero eta garrantzi handiagoa dute, gainera. Sare sozialek, guk hala nahi edo ez, munduaz dugun ikuspegia adierazten dute, eta hura interpretatzeko modua dira.

Horrez gain, badakigu estereotipoetan eta aurreiritzietan oinarritutako zurrumurrak hedatzeko leku aproposa direla, eta zenbait kolektibo zaurgarriri kalte handia egin diezaieketela. Horregatik, zenbait osagai eskaintzen ditugu, gutako bakoitzak azkenean zurrumurruen aukako estrategia prestatzeko erabiliko dugun errezetarako, haren orientagarri izan daitezen, zaporea eman diezaioten eta aberastu dezaten. Eskerrak eman nahi dizkiegu **Estitxu Garai, Julen Orbegozo, Elixabete Larrinaga** eta **Victor Pozasi** beren denbora eta hitza eskaini baitziguten.

Amaitu gabeko koaderno da, kontzienteki amaitu gabe utzi duguna. Osagaiak ditugu, baina ez da behin betiko errezeta bat. Espero dugu, indarrak, jakintzak eta esperientziak elkartuz, denon artean, egoera konplexu baten zertzelada xume bat soilik den honen gainean lan egiten jarraitu ahal izatea.



Zas!
komunikazio
-gaitasunak
lantzeko
ikuspegiak

Zurumurruen aurkako strategiaren (**ZAE**) funtsezko urratsetako bat pertsonak prestatzea da (etorkizuneko eta/edo egungo zurumurruen aurkako eragileak), jatorri atzerritarra duten biztanleei buruzko estereotipoak eta aurreiritziak hainbat ikuspegitatik jorratzen dituzten saioen bidez (soziologikoa, antropologikoa, psikologia soziala, etab.). Prestakuntza horren funtsezko ataletako bat da zenbait egoeratan (lanean, lagunartean, familian, etab) aurreiritzietan eta estereotipoetan oinarritutako mezuen aurka egiteko beharrezkoak ditugun eta lagungarri izango zaizkigun komunikazio-trebetasunak lantzea herritarrekin.

Hurrengo orriotan, hain zuzen ere, urteotan saio horietan lan egin duten profesionalen esperientzia jasotzen eta sistematizatzen saiatu gara. Haien ikuspegietara, metatutako ezagutzetara eta beren lanaren funtsa diren tresnetara hurbildu nahi dugu. Eta jakin, etorkizunari begira, zer kezka eta begirada duten **ZAE**ei buruz.

Profesional horiek ia naturaltasunez sartu dira **ZAE**etan, horri buruzko ezagutza zuten pertsonak baitira, eta **ZAE**ak martxan jartzeko erronkari heldu dieten udalerriek hauteman egin baitute. Hala gertatu zen **Raquel Morenoren**ekin: 2010. urtean Bartzelonako Udala harekin harremanetan jarri zen Zurumurruen Aurkako Agentearen Gida Praktikoa egiten lagundu zezan. Eta antzeko zerbait gertatu zen **Asier Gallastegirekin**: 2015. urtearen hasieran, Getxoko immigrazio-teknikaria zenak **ZAE**etan parte hartzera gonbidatu zuen. **AMEKADI** eta **MATIZ** elkarteei dagokienez, berriz, Getxoko eta Bilboko **ZAE**ei buruzko prestakuntzetan parte hartu zuten, eta, orduetik aurrera, lan handia egiten hasi ziren zenbait udalerritako **ZAE**en lanketan: **ZAE**etan parte hartzen dutenen prestakuntza, haien lana erraztea eta laguntzea, materialak diseinatzea, udalen edo auzoen funtsezko mapatzea egitea zer gizarte-ehun zuten jakiteko, edukiak sortzea eta sare sozialetan zabaltzea, eta abar.


Bai **Raquelek** bai **Asierrek**, eta **MATIZ** eta **AMEKADI** elkarreentako taldeak, ibilbide eta *background* oparoa dute, eta bat egiten da **ZAE**etan:



Aldaketaren teoria



Ikuspegi sistemikoa



Ikuspegi sozio-afektiboa



Garapen komunitarioko prozesuen ikuspegia

Era berean, ikuspegi edo marko horietatik, erabiltzen dituzten tresnak askotarikoak dira. Gainera, proba asko dago, saiakuntza eta errakuntza asko, zerk funtzionatzen duen eta zerk ez jakiteko. **Tresna biziak dira, saio bakoitzean eraikitzen direnak:**



Taldeak erraztea



Komunikazio ez-bortitza eta eraginkorra



Antzerki Foroa



Espazio Irekiak



On Line Metodologiak



Komunikazio-teknikak: entzute aktiboa, parafraseatzea, ni mezuak, hizkuntza inklusiboa erabiltzea, empatia, iritzizko adierazpenik ez egitea, egonezina adieraztea.



Parte-hartzeko teknikak eta dinamikak



Antzerki moduan adieraztea, Psikodrama, Role Playinga

Horrez gain, osatzeko, ZAEak hobeto lantzeko giltzarri eta lagungarri izan diren **zenbait lan eta inspirazio iturri** adierazten dira: direla beste proiektu batzuk, direla beste zenbait lekutan abian jarri diren esperientzia esanguratsuak, direla **ezinbestean irakurri beharreko liburuak**.



Garapen komunitarioko ICI proiektuak

Stop Rumores Andalucía

Bartzelonako esperientzia

Kultura arteko hirien sarea (RECI)



Gakoa

Nola ikusten eta ulertzen ditugu ZAEak?

Galdera hori da **ZAE**en oinarria edo funtsa. Nola eta zer ikuspegitik erantzuten dugun, tresna batzuk eta pedagogia bat erabiliko dugu, erabat desberdina.

Ildo horretatik, **zurrumurruen aurkako estrategia** ez da borrokarako edo lehiarako estrategia bat; **aitzitik, laguntzea, topaketa eta elkarrizketarako aukera ematea** da. Zurrumurruen aurkako estrategia ez da zurrumurru faltsuei erantzuteko estrategia bat, baizik eta **prebentziozko estrategia bat, esparru eta diskurtso alternatiboak eraiki eta sortuz lan egiten duen estrategia bat**.

Eta, horren eraginez, **Amekadi** elkarteak adierazten duen bezala, estrategiak beste ikuspegi batzuekin egiten du bat, baina ez haien tresna berberekin (adibidez, ez ditu erabiltzen borrokarako edo salatzeke tresna batzuk):

“Interesgarria iruditzen zaigu gure ikuspegia arrazakeriaren aurkako ikuskera batetik garatzea, baina jakitun izanda ez garela arrazakeriaren aurkako proiektu/mugimendu bat, giza eskubideen urraketak gertatzen diren egoeren aurka egiteko edo haiek salatzeke mugimendu bat. Gure ustez, gure lana bestelakoa da: gizarteari laguntzea zalantzan jartzen gizarteak berak eraikitako zenbait pertzepzio negatibo”.

Asier Gallastegik adierazten duenez, badira pertsona batzuk, mugimendu batzuk edo okupatzen ditugun leku batzuk, helburu dutenak *“bestea babestearen bidez nork bera politikoki autoeraikitzea”*. Baina hortik posible al da gu bezalakoa ez den pertsona bati eragitea? Eraiki al daiteke elkarrizketa, borrokarako, defentsako edo erasoko posizio batetik? Hara zer esaten digun, horri buruz, **Amekadik**:

“Ahalegina egin behar da borroka-aren ikuspegia ardatz duten hitzak eta begiradak ez erabiltzen, bi bando, “onak” eta “txarrak” ez egiten. Abiapuntua norberaren aurreiritziak aitortzea izan behar du, eta errespetua eta enpatia oinarri hartuta, elkar ulertzeko bidea egitea, denon artean elkarbizitza eraikitzeke.”



Eta **Asierrek** esaten duen bezala, une batez, ulertzen badugu **“zurrumurru bat lasterbide bat dela, beste modu batean jokatzeko ez dakienaren lasterbidea”** ulertu ahal izango dugu, pertsona askorentzat hori dela jarduteko modua, ez baitu baliabiderik edo tresnarik beste modu batean jokatzeko. Horrenbestez, argudiatzen du **Asierrek** *“gure helburuak ez du izan behar pertsona horiek isilik, nekatuta eta burua makurtuta geratzea. Gure helburuak izan behar du baliabide gehiago izan ditzatela, berriro zurrumurruaren lasterbidea erabili beharrik ez izateko”*.

Hemen, eta egiten diren saioetan, ez dira pertsonak konbentzitu nahi diskurtso moralistak erabiliz, errealitatea sinplifikatzen duten diskurtsoak erabiliz. Eta horretan bat datoz **Raquel Moreno** eta **MATIZ**, hau adierazten baitute:

“Elkarrizketa positibo, lasai eta eraikitzailea sortzea. Ahalegintzea pertsonak ez zaitzan defentsa-jarrerataraz bultzatu, diskurtsoak eta joerak erradikalizatzea eragiten baitute soilik. Zalantza sortzea, pertsona bera izan dadin bere ondorioak ateratzen dituen, inor doktrinatu gabe”

“Planteamendu zurrunarekin jardutea, uste izanda gurea dela egia, taldearen gainetik jarrita. Eta espektatibekin tentuz ibiltzea, pentsatzea saioarekin/prestakuntzarekin taldean gauza asko aldatuko ditugula”.

Behin baino gehiagotan **Asier Gallastegik** esan duen bezala *“errenditu egin direlako irabazi behar da”*.



Zer elementuk errazten dituzte eta zeintzuk oztopatzen dituzte ZAEak?



ERRAZTU

Botere publikoek horrelako neurrietan sinestea eta horien aldeko apustua egitea

Tokiko erakundeek epe ertainera edo luzera **inbertsio ekonomiko** bat egitea erabakitzeak prozesuak denboran luzeago iraungo duela ikusten laguntzen du

Hezitzaileak funtsezko elementua dira abiapuntu teoriko bat lantzeko, bai oinarrizko prestakuntzetan, bai eta mintegi espezifikoetan ere

Saioa egiten den lekua **espazio atsegina, egokia, izatea** hartan parte hartzen duten pertsonentzat. Argi, tenperatura eta akustika egokia izatea, eta beharreko baliabide teknikoak edukitzea

Giro positiboa izatea, interesa izatea. Saioaren aurretik giro positiboa izateak parte-hartzen duten pertsonen inplikazioa errazten du



OZTOPATU

Abiapuntu teoriko komun bat ez izatea gai honetan lan egiten dugun tokiko erakundeek eta erakunde sozialek

Presak eta emaitzak azkar lortu nahi izateak ere ez du laguntzen ZAEak garatzen. Luzaroko emaitzak lortu behar dituen proiektua bihurtzen da, eta horrelako emaitzak lortzea zaila da, ezinezkoa esango genuke, gizarte aldaketa sakonak izan behar direla baita abiapuntua

Parte hartzen duten pertsonen artean **aldez aurreko gatatzak badaude**, azaleratu egiten dira azkenean eta trabak sortzen dituzte saioetan

**Etorkizun
hurbil
baterako
iradokizunak**



Gure helburu diren profilekin lan egiten duten **profesionalei prestakuntza ematea**: institutueta eta prestakuntza-zikloetako irakasleak; gazteentzako espazioetako dinamizatzaileak, edota beste kolektibo batzuetakoak, adineko pertsonenak, esaterako.



Udalerrietako erreferente naturalekin lan egitea: elkarteetako pertsonekin, merkatariekin, politikoekin, erlijio-liderrekin, osasun-langileekin, etab. **Herriko jendearekin kontaktu handia duen pertsonekin**, iritzia sortzen dutenekin.



Tokiko komunikabideekin lan egitea.



Prestakuntza-taldeek berek aniztasuna izan dezaten lortzea.



Prestakuntza eskuragarri izatea eta egokitua, bai alderdi kognitibotik zein fisiko eta digitaletik, ezaugarri komuna bizilagunak izatea duten pertsonen zein taldeen parte hartu ahal izateko.

ZASka!
komunikazio
baterako
osagaiak

01

Ez ahaztea desinformazioa eta fake newsak betidanik egon direla. Eta haien helburuak antzekoak zirela lehen eta orain. Ezaugarri batzuk soilik dira berriak: herabideak berriak dira eta **eduki faltsuen sorrera eta hedapena demokratizatu egin da.**

02

Zergatik partekatzen edo zabaltzen ditugu fake newsak, egia diren ala ez ez dakigun gauzak edo informazio lerratuak?

Bada **marmartiak garelako**. Ez dakigu egiten ari garena ondo dagoen, partekatzen dugun edukia edo sustatzen ari garen iritzia zuzena ala okerra den, edo norbaiti min egiten dion, eta, hala ere, partekatu ikonoari ematen diogu.

Sare sozialetan dugun aktibitatea **bulkadetan eta emozioetan** oinarritzen da. Pertsona bati esaten diogunean ez zabaltzeko egia den ala ez ez dakien gauzak edota tontakeriak, eskatzen ari gatzazkiona da instintuari eta emozioari uko egitea eta bere alderdi kognitibo-arrazionala aktibatzea. Oso gauza zaila, alegia. Eta are zailagoa arrazoiak -arrazionalitateak- modaz pasatutakoa eta oso erakargarria ez den zerbait dirudien garaiotan.



03

Baina zergatik partekatzen ditugu albiste faltsuak edota desinformaziotik hurbil dabiltzanak?

- Horrek ematen digun BOTERE eta ERAGIN sentsazio faltsuagatik.
- Autestimua handitzen digu. Partekatzen lehena naiz!
- Gure sinesmenak indartzen ditu.
- Taldeko kide izatearen sentimendua indartzen du eta rol bat ematen digu hartan.
- Plazerra sortzen digu.

04

Zer egin dezakegu?

- Zure iritziaz bestelakoa duten pertsonak jarraitu. Zabaldu begirada.
- Kontuz *like*ak dakarren bukle geldiezinarekin.
- Zer baldintza moral dituzu zerbait partekatzeko edo *like* bat emateko?
- Desinformazioari aurre egiteko? **Espiritu kritikoa**. Informazio lerratuari, maltzurari, iruzurtiari aurre egiteko? **Are espiritu kritiko handiagoa**.

05

Eta fake news batekin topo egiten badut? Erantzun egingo al dut?

Hartu kontuan zenbait gauza:

Zure ahalmena: Nahikoa argudio al duzu erantzuteko eta zure erantzunekin narratiba indartsua sortzeko?

Fake newsak egia den zerbait ere ba al du?

Nor da egokiena fake newsari erantzuteko?: erasotua izan den pertsona, horretan ospea duen pertsona bat, inguruko edo hurbileko norbait...

Proiekzio handia izan al du fake newsak? Ez bada hala izan eta erantzun egiten baduzu, agian lagundu egiten ari zara oihartzuna izaten.

Zer-nolako albiste faltsua da? Eztabaida datu batzuekin itxi dezakezu edo amaierarik gabeko eztabaida eragingo du?

Nolako pertsonarekin egin duzu topo? *Trol* bat da, inolako araurik bete gabe zilegitasuna kentzen edo jendea iraintzen jarduten duena, edo izena eta abizenak dituen pertsona bat da? Pertsona bat beste fake news batekin edo ia pertsonalki iraintzen zaituen argudio batekin erantzuteko prest badago, ez du merezi sartzea.

Zein da sare sozial horren tonua? Sare sozialen tonuari erreparatu behar zaio. Tonua ironikoa edo umorezkoa bada, tonu horretan erantzun behar da, edota adarra jotzen, besteak baino abilago.

Noiz erantzun? **Denbora** faktore giltzarria da. Azkar erantzuten baduzu eta hasieratik ekintza zuk bideratzen baduzu, irabazi egin duzu... eta jokalekua zuk ezarri duzulako egin duzu.

06 **Twitterreko frankotiratzailak: behar-beharrezko militantzia mota bat. Baina ez al daude mikroburbuilak diren eztabaidak twitterren? Hots, kalean ez dauden eztabaidak?**

Bai, baina badira kalean ere badauden gai orokorrak ere.

Frankotiratzailak narratibak sortzen dituzte **bitza guztian tabernan egon diren esaldi batzuetatik**. Tabernako diskurtsoekin bat egitea Funtsezkoa da eta trebezia handia eskatzen du.



Twitter **modu sinplean eta zorrotzean ideia politikoak eta sozialak kondentsatu eta azaltzeko** ahalmena da. Baina oso ondo jakin behar da **zer esan nahi duzun eta nori esan nahi diozun**. Eta, bizitzako ia arlo guztietan bezala, jardute kontua da. Etengabe jardutea.

07

Pertsona guztiok ez dugu nahi eta ez dugu behar konplexutasun eta sakontasun maila bera. Eta gutako edozeinek ere, bizitzako zer unetan gauden, sinpletasuna eskertzen dugu edota konplexutasuna eskatzen dugu.

08

Umorea eta **ironia tresna onak dira beti**. Gerta daiteke ez ulertzea; baina bizitza osoan erabili izan diren bi elementu dira...

09

Sare sozialetan **zurikeria edo postureoa** dago gai sozialen inguruan. Eta, izan ere, **arrazista ez izatearen zurikeria dago, feminista izatearena, ekologista izatearena**, etab. Den-denok, nahi ala ez, besteen aurrean ondo geratu nahi dugu. Eta zurikeria hori gure aldeko arma izan daiteke,... ala ez?

10

Benekotasuna, balioak, dimentsio morala... Kontuz!, ezen **lortu nahi dugun gizarte idealaren eremuan geratzen bagara, kalean benetan gertatzen denetik kanpo geratuko gara...** eta kalean dagoena abiapuntu hartzeak, hots, errealitatea abiapuntu izateak, lokatzetan sartzea dakar...



